

**ERANDIO**  
ELIZATEKO UDALA



AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE ERANDIO  
BIZKAIA



## Laguntzak eta diru-laguntzak

### Euskadi

Oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresak merkatutzeko proiektuak egiteko NETs laguntza programa	4
«Produkzio Ekipamenduen Modernizazioa» Programa	5
Enpresa Txiki eta Ertainen Ondorengotzari buruzko Programa	6
Zientzia, teknologia eta berrikuntza ezagutarazteko proiektuak gauzatzen laguntzak. Hedatu programa.	7
Aldatu Programa, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan berrikuntza proiektuak gauzatzeko laguntzak arautzen dituen	7
Aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatze, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egin ditzaten diru-laguntzak	8
Zentro teknologikoei eta beren korporazioei eta itun teknologikoei laguntzeko programa. Emaitek Programa.	9
Euskadin Turismoa Sustatzeko Programa	10
Mikroenpresa Digitala Programaren bidez laguntzeko neurri batzuk ezartzen dira, Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT)	11
Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko proiektuetarako diru-laguntzak	12
2000 Euskadi Plana – ibilgailuak erosteko diru-laguntzak	13
Euskal Autonomia Erkidegoan langabezian dauden eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioa sustatzeko ezohiko laguntzak. +Euskadi 09 plana.	14
Industriako edo berari lotutako zerbitzuetako Enpresa gazte berritzaile eta hazkunde-gaitasun handia dutenek EAEn gauzatzeko enpresa-proiektuetarako «Connect» programa	15
Resiste Programa	16
Patenteak eskatzeko laguntzak	17
Langile autonomoentzako ezohiko laguntzak	18
Hobeki Digitala programa	19
Konekta Zaitetz Lankidetzak.	20
Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko proiektuetarako diru-laguntzak	20
Produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko. Gaitek programa	22
Eragile Zientifiko-Teknologikoentzako laguntzak. Saiotek programa.	22
Krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak	23

### Bizkaia

Bizkaiko lurralde historikoan erretiroa hartu aurretik nekazaritza uzten dutenei emateko laguntzak	24
Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako aseguru primetarako laguntzak	26

### Estatua

Ekonomia gizartekoiarako, gizarteraeen erantzukizunarako eta autoenplegurako sustatzeko jardueretarako diru-laguntzak	28
Torres Quevedo Programa	29
Lanbiderako lanbide heziketa: prestakuntza-planak	29
Diru-laguntza bidea ico-Ete	30
Diru-laguntza bidea ico - ekintzaileen	32
Diru-laguntza bidea ico –enpreseen hazkundea	34
Diru-laguntza bidea ico - nazioazteketze	37
Diru-laguntza bidea ico - likidezia	39
Diru-laguntza bidea ico -garraioa	41
Diru-laguntza bidea 2009ko Ete luzamendu	43
Diru-laguntza pLAN VIVE 2008- 2010	45
avanza plana	47

### Sektore turistikoaren Legeak

iraunkortasunaren hobekuntzarako kreditu-linea. Plana FuturE	48
27/2009 legea, Abenduaren 30koa, enplegu-sustapen eta mantentzerako eta langabe pertsonen babesaren premiazko neurrien	50
14/2009 Legea, azaroaren 11koa, langabeziagatik babesaren aldi baterako programa arautzen duena	50
(CE) 66/2010 2009ko azaroaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Araudia EBen etiketa ekologikoari buruzko	50

### Albisteak

Sailak berrantolatu egin ditu bere programak, euskal enpresei zerbitzu hobea emateko	51
Euskal AEko BPGk urte arteko %2,5eko murrizketa izan zuen 2009ko laugarren hiruhilekoan	51
Aldundiak neurri berriak abiarazi ditu ekonomia sustatzeko	51
Jaurlaritzak Estrategikoa den Industria Ikerketetarako Laguntzak (Etorgai) handituko ditu	52
Jaurlaritzak enpresa finantzaketarako abalen linea Dekretu bidez onartu du	52
SPRIk 6 milioi euroko diru-laguntzak emango ditu euskal enpresetan berrikuntza proiektuak ezartzeko	53
Alternativas fundazioak espainiako 2009ko gizarte erantzukizun korporatiboari buruzko txostena argitaratu du	53

Produktu espezializatuak dira Internet bidezko salmenten etorkizuna

53



**Laguntzak eta diru-laguntzak****Euskadi****ONARRI ZIENTIFIKOA ETA TEKNOLOGIKOA DUTEN ENPRESAK MERKATURATZEKO  
PROIEKTUAK EGITEKO NETS LAGUNTZA PROGRAMA****Informazio Iturria:** EHAA**Data:** 2010/02/15**Epea:** 2010/06/02**Xedea:** I+G+B**DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:**

Diru-laguntza jaso dezaketen I+G+Bko jardueren artean, honako hauek hauta daitezke:

- a) Industria-ikerketako proiektuen aurreko bideragarritasun-azterketak.
- b) Industriako ikerketa-proiektuak.
- c) Garapen esperimentaleko -proiektuen aurreko bideragarritasun-azterketak.
- d) Garapen esperimentaleko proiektuak.

Jarduera horietan honako hauek barne hartuko dira: enpresa berria merkaturatzeko lan-plangintzaren definizioa eta aurrekontua.

**ONURADUNAK:**

Elkarteak - Fundazioak, Enpresak, ETE, Zentro teknologikoak

**ZENBATEKOA:**

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen gehienezko zenbatekoari dagokionez (250.000 euro), urteko deialdian egunera daiteke, KPlaren gorabeherak aintzat hartzearen, baina mugak handitzeagatik, inola ere ezin izango dira handitu laguntzen gehienezko intentsitateak proiektu mota guztietan, ETEen Erkidegoko Esparruaren eta Araudiaren arabera, hurrenez hurren.

**DOKUMENTAZIOA:**

Eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da proiektu bakoitzeko:

- a) Eskabide-orria, enpresaren informazio orokorra eta guzti.
- b) Enpresaren jarduerari buruzko oinarritzko datuen deskribapen-memoria.
- c) Ikerketa Proiektuaren deskribapen memoria, azpikontratatu beharreko jarduerak, enpresak eta zenbatekoak zehaztuz.
- d) Eskatzailearen ordezkartza-ahalordearen kopia.

ARAUTEGIA: EBAZPENA, 2010eko urtarrilaren 27koa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena.  
EHAA: 2010/02/15.

AGINDUA, 2009ko abenduaren 23koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena.  
EHAA: 2010/01/15

AGINDUA, 2008ko azaroaren 27koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena; horren bitartez, oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresak merkaturatzeko proiektuak egiteko NETs laguntza programa arautzen da. EHAA: 2008/12/23.

**Informazio gehiago:**

[http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/706-7\\_innovación\\_gv\\_15-02-10.pdf](http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/706-7_innovación_gv_15-02-10.pdf)

**«PRODUKZIO EKIPAMENDUEN MODERNIZAZIOA» PROGRAMA****Informazio Iturria:** EHAA

**Data:** 2010/02/22

**Epea:** 2010/10/15

**Xedea:** Ekonomiko-Finantza

**DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:**

Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, makina berriak erosteko gastu egiaztatuetatik balio erantsiaren gaineko zerga kenduta geratzen den balio garbia izango da laguntza jaso dezakeen inbertsioa.

**ONURADUNAK:**

ETE, Mikroenpresak

**ZENBATEKOA:**

Diru-laguntza ez itzulgarri gisa eman beharreko laguntzek makina berriak erosteko gastu egiaztatuen % 20 finantzatu dute, eta gehienez ere 18.000 euro emango dira erositako makina berri bakoitzeko. Diru-laguntza enpresa bakoitzeko eta urteko, gehienez ere, 40.000 eurokoa izango da.

**DOKUMENTAZIOA:**

- a) Eskabide normalizatuaren inprimakia ([www.spri.es](http://www.spri.es) helbidean).
- b) Enpresak Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrearekiko betebeharrak bete dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua (ziurtagiria, eskabidea aurkeztu baino gehienez ere hiru hilabete lehenago eginga izango da).
- c) Eskabidea sinatu duen pertsonaren ahalordearen fotokopia.
- d) Erakunde eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena ([www.spri.es](http://www.spri.es) helbidean).
- e) Enpresaren adierazpena, enpresak aurtengo ekitaldi ekonomikoan eta aurreko bietan estatu-laguntzaren izaera duen laguntza-erregimenaren babesean jasotako zenbatekoak egiaztatzen dituen, edozein dela ere laguntza eman duen erakundea.
- f) Adierazpena, Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpoko eta merkatu erkidearekin bateraezina dela aurretiaz erabaki ondoren eskatzailea berreskuratze-agindu baten menpe ez dagoela dioena.
- g) Makina berrien erosketak egiaztatzen duten jatorrizko fakturak, edo behar bezala konpultsatutako kopiak.
- h) Makinei buruzko informazioa eskaintzen duten agiriak, bai txatar bihurtutako makinei bai makina berriei buruzkoa; azken kasu horretan, makinek aurreko 3.4 artikuluan adierazitako ezaugarriak betetzen dituztela zehaztuko da ([www.spri.es](http://www.spri.es) helbidean).
- i) Enpresa eskatzaileak hitzartu duen kanpoko prebentzio zerbitzu baimenduaren edo baimenduen ziurtagiria. Honetan, hitzarmenak eta hitzartutako espezialitateak indarrean daudela adieraziko da.
- j) Auditoria egiteko erakunde baimenduaren ziurtagiria, enpresak prebentzio sistemaren arauzko auditoria egin duela eta hori eguneratua dagoela egiaztatuz.

ARAUTEGIA: IRAGARKIA, «Produktzio Ekipamenduen Modernizazioa (MEP)» laguntza-programaren 2010eko ekitaldiko araudia onartzekoa. EHAA: 2010/02/22.

**Informazio gehiago:**

[http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/857-4\\_inversion\\_spri\\_22-02-2010.pdf](http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/857-4_inversion_spri_22-02-2010.pdf)

## ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN ONDORENGOTZARI BURUZKO PROGRAMA

**Informazio Iturria:** EHAA

**Data:** 2010/02/24

**Epea:** 2013/12/31

**Xedea:** Lan eta giza errekurtsok

**DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:**

Kanpo aholkulariak gauzatutako fase hauek diruz lagun daitezkeen jardueratzat joko dira:

- Aurretiatzko diagnostikoa egitea enpresaren kudeaketari, gobernamenduari eta jabetzari buruz, eta betiere enpresaburuari aholkularitza pertsonalizatu eta espezifiko eskainiz.
- Kapital Sozialaren gehiengo ordezkatzen duen ondorengotza protokoloa taxutu eta formalizatzea.
- Kanpo aholkulariaren laguntza ondorengotza protokoloa abian jartzeko eta aldi behin berrikusteko, urtebetez gehienez.

**ONURADUNAK:**

ETE

**ZENBATEKOA:**

- 1.- Diru-laguntzaren zenbatekoa: fase bakoitzean diruz lagun daitezkeen gastuen % 50.
- 2.- Enpresa bati eman dakiokkeen gehieneko diru-laguntza fase bakoitzean:
  - Aholkularitza pertsonalizatua eskaintzea eta diagnostikoa egitea: 3.000 euro.
  - Ondorengotza protokoloa taxutu eta idaztea: 12.000 euro.
  - Protokoloa abian jartzeko eta aldi behin berrikusteko laguntza: 5.000 euro.

**DOKUMENTAZIOA:**

- a) Laguntza eskariaren inprimakia behar bezala beteta.
- b) Enpresaren eraketa eskrituraren kopia.
- c) IFZ, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia.
- d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren (EJZ) azken ordainagiria.
- e) Notario-ahalordea, eskatzaileak eskaera hau egiteko nahikoa ahalmen duela egiaztatzeko.
- f) Beste bi kanpo aholkulariaren eskaintzak.
- g) Hautatutako aholkulariaren identifikazio datuak.
- h) Hautatutako eskaintza, bi alderdiek sinatua.
- i) Zerga alorreko eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean dagoela egiaztatzeko agiria.
- j) Aurreko hiru urteetan jasotako laguntzei buruzko zinpeko aitortpena.
- k) Beste erakunde batzuetatik modu bereko laguntzarik jaso ez duela egiaztatzeko zinpeko aitortpena.
- l) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan jasotako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko aitortpena.

ARAUTEGIA: IRAGARKIA, «Enpresa txiki eta ertainean ondorengotza» Programa aldatu eta bere indarraldia luzatzeko dena. EHAA: 2010/02/24.

IRAGARKIA, industriako, industriari lotutako zerbitzuen sektoreko eta merkataritza eta turismoko enpresa txiki eta ertainei ondorengotzaren planifikazioan eta prozesuan laguntzeko neurriak aldatzeko dena. Enpresa Txiki eta Ertainen Ondorengotzari buruzko programa. EHAA: 2009/02/10.

IRAGARKIA, industriako, industriari lotutako zerbitzuen sektoreko eta merkataritza eta turismoko enpresa txiki eta ertainei ondorengotzaren planifikazioan eta prozesuan laguntzeko neurriak onesteko. Enpresa Txiki eta Ertainen Ondorengotzari buruzko Programa. EHAA: 2006/06/07.

**Informazio gehiago:**

[http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/738-2\\_gestión\\_spri\\_24-02-10.pdf](http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/738-2_gestión_spri_24-02-10.pdf)

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA EZAGUTARAZTEKO PROIEKTUAK GAUZATZEN LAGUNTZAK. HEDATU PROGRAMA.**

**Informazio Iturria:** EHAA

**Data:** 2010/02/17

**Epea:** 2010/06/30

**Xedea:** I+G+B

**DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:**

Enpresaburuen artean berrikuntzaren mezua ezagutarazteko proiektuak eta jarduerak gauzatzea bultzatuko da, baita enpresen jakituria hobetzera bideratutakoak ere, honako eremu hauetan: zientziaren eta teknologiaren arloko garapen berriak, negozio-aukera berriak, eta oinarri zientifiko-teknologikoa duten enpresa berritzaile berriak sortzea, edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemak berak dituen egiazko gaitasunak, Teknologiaren aldetik Europarekin Bat egiteko egungo prozesuak dakartzan erronka zientifiko-teknologikoei aurre egiteko.

**ONURADUNAK:**

Elkarteak - Fundazioak, Enpresak, Zentro teknologikoak, ETE

**ZENBATEKOA:**

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izango dira, betiere diru-laguntza jaso dezaketen gastu onartuen % 90 gainditu gabe.

**DOKUMENTAZIOA:**

- Erakundeari buruzko informazio orokorra izango duen eskaera.
- Erakundearen jarduerari buruzko oinarritzko datuen deskribapen-memoria.
- Ezagutarazteko Proiektuaren deskribapen-memoria.
- Eskaera-egilearen ordezkartza-ahalordearen kopia.
- Honako datu hauek egiazkoak direla aitortzen duen zinpeko aitortpena.

ARAUTEGIA: EBAZPENA, 2010eko otsailaren 3koa. EHAA:2010/02/17

AGINDUA, 2005eko irailaren 12koa. EHAA:2005/09/11.

**Informazio gehiago:**

[http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/823-4\\_i+d\\_gv\\_17-02-10.pdf](http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/823-4_i+d_gv_17-02-10.pdf)

**ALDATU PROGRAMA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENPRESETAN BERRIKUNTZA PROIEKTUAK GAUZATZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUENA**

**Informazio Iturria:** EHAA

**Data:** 2010/02/05

**Epea:** 2010/12/31

**Xedea:** I+G+B

**DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:**

Programa honen xedea laguntzak ematea da, ondoko arlo hauetan berrikuntza proiektuak sustatzeko:

- Enpresaren estrategia birplanteatzeko.
- Merkatu eta antolaketa berrikuntzetarako.
- Berrikuntza gaitasuna garatzeko.

Diru-laguntza hauetatik kanpo daude aldizkako aldaketa normalak, hots, planetan, antolaketan,

produktuetan, ekoizpen linea eta prozesuetan eta lehendik dauden zerbitzuetan egin ohi direnak, hala nola ohikoak diren beste operazio batzuk.

**ONURADUNAK:**

Elkarteak - Fundazioak, Enpresak, ETE

**ZENBATEKOA:**

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza hauek gehienez ondoko portzentajeetaraino iritsi ahal izango dira:

- Proiektuen kostu aukeragarrien % 30.
- Eta % 5eko hobaria, lankidetzarik bada; Enpresa Handiaren kasuan, % 15ekoa izango da.
- Eta % 20ko hobaria, onuraduna ETE bat bada.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza hau gehienez 90.000 eurokoa izango da urteko eta onuradun bakoitzeko.

**DOKUMENTAZIOA:**

- Enpresari buruzko informazio orokorra eta posta elektronikoko helbide bat izango dituen eskaera bat; helbide elektronikoki hori jakinarazpenetarako onartutako bide bakarra izango da. Gainera, kontu zenbaki bat ere izan behar du, bertan diru-laguntza sartzeko.
- Enpresaren jarduerari buruzko oinarritzko datuen deskripzioko memoria.
- Berrikuntza Proiektuaren deskripzioko memoria.
- Enpresa eskatzailearen legezko ordezkariaren IFZ, NAN edo AIZaren fotokopia.
- Eskatzailearen ordezkari-ahalmenaren kopia.
- Finantza-erakundearen ziurtagiriaren kopia, banku-kontuaren titulartasuna enpresa onuradunaren izenari dagokiola egiaztatzen duena.
- Zinpeko aitortpena, eta horren bidez hau ziurtatzen da:
  - Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako zerga betebeharretan egunean dagoela.
  - ETEa bada, haren ezaugarriak bat datozela programa honetako 2.1.a artikuluan Europako Erkidegoko arauetara jarraiki jasotzen den ETEaren definizioarekin.
  - Ez daudela Herri Administrazioekin lotuta edo haien mende, eta ez direla Administrazio Instituzionalekoak.
  - Ez dutela debekurik edota gaitasun gabetzerik programa honen 3. artikuluko d atalean jasotzen den moduan.
  - Proiektu berarentzat beste erakunde publiko zein pribatu batzuetan onartu edota eskatu diren laguntzak.

ARAUTEGIA: IRAGARKIA. SPRI.S.A. EHAA: 2009/02/05

**Informazio gehiago:**

[http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/854-3\\_innovacion\\_spri\\_05-02-2010.pdf](http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/854-3_innovacion_spri_05-02-2010.pdf)

**AHOLKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK KONTRATATZEKO, EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSIA ETA BERDINTASUN-PLANA EGIN DITZATEN DIRU-LAGUNTZAK**

**Informazio Iturria:** EHAA

**Data:** 2010/02/08

**Epea:** 2010/03/09

**Xedea:** Aukera berdintasuna

**DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:**

Aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzeke izango da diru-laguntza.

**ONURADUNAK:**

ETE

**ZENBATEKOA:**

Diru-laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu nahi den jardueraren kostuaren % 50 izango da, gehienez ere; eta onuradun bakoitzeko, 10.000 eurokoa, gehienez ere.

**DOKUMENTAZIOA:**

- a) Aholkularitzak laguntza teknikorako egindako proposamena, 3. artikuluko i) atalean zehaztutakoari jarraiki.
- b) Zuzendaritzaren konpromisoa (II. eranskina).
- c) Laguntzak ustez izango duen eraginari buruzko txostena.
- d) Erakundeko pertsona bat barne dinamizatzaile izendatzea (III. eranskina).
- e) Enpresan zenbat langile dauden egiaztatzen duen agiria.
- f) Barneko lan-taldearen osaera eta hori osatzeko irizpideak.
- g) Eskatzaileak ordezkatzeko ahalmena duela egiaztatzen duen agiria.
- h) Eskabidea izenpetu duenaren zinpeko adierazpena, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako laguntzarik ez diotela eman ziurtatzeko.
- i) «Datuen alta/Hirugarren interesatua» inprimakia (VI. eranskina).
- j) Estatutuen, eratze-agiriaren eta Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.
- k) Ziurtagiri eguneratuak, gehien jota, diru-laguntza eskatu baino hiru hilabete lehenagokoak: batetik, eskatzaileak zerga-betebeharrak konplituta dauzkala egiaztatzen duena, Foru Ogasunak egindakoa; eta, bestetik, hala behar denean, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak konplituta dituela egiaztatzen duena, Lurraldeko Diruzaintzak egindakoa, edo, salbuesirik egonez gero, salbuespen hori egiaztatzen duen agiria.
- l) Eskabidea izenpetzen duen pertsonaren zinpeko adierazpena, egiaztatzeko batetik, pertsona horrek eta erakunde eskatzaileak ez dutela administrazio-zehapen edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egiteagatik.
- m) Eskabidea izenpetzen duen pertsonaren zinpeko adierazpena, egiaztatzeko erakunde eskatzaileak ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapenik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere. VII. Eranskina.
- n) Esleipen-irizpideen arabera, proposamena egoki baloratzeko beharrezkotzat jotzen diren agiri guztiak.

ARAUTEGIA: EBAZPENA, 2010eko urtarrilaren 13koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena. EHAA: 2010/02/08.

**Informazio gehiago:**

[http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/758-5\\_igualdad\\_emakunde\\_08-02-10.pdf](http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/758-5_igualdad_emakunde_08-02-10.pdf)

**ZENTRO TEKNOLOGIKOEI ETA BEREN KORPORAZIOEI ETA ITUN TEKNOLOGIKOEI  
LAGUNTZEKO PROGRAMA. EMAITEK PROGRAMA.**

**Informazio Iturria:** EHAA

**Data:** 2009/12/19

**Epea:** 2010/03/15

**Xedea:** Ekonomiko-Finantza

**DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:**

Programa horren bidez esleitzen diren diru-laguntzak: erakunde onuradunek, deialdiko urte naturalean zehar, garatzen duten jarduera ez-ekonomikoaren gutzizko kostuaren % 100ekoa izan daitezke. Jarduera ez-ekonomikotzat jotzen dena: Ikerketarako eta garapen/ berrikuntzarako estatu-laguntzei buruzko Batasunaren esparruan Europako Batzordeak ezarritakoa (2006/ C 323/01).

**ONURADUNAK:**

Zentro teknologikoak

**ZENBATEKOA:**

Programa horren bidez esleitzen diren diru-laguntzak: erakunde onuradunek, deialdiko urte naturalean zehar, garatzen duten jarduera ez-ekonomikoaren guztizko kostuaren % 100ekoa izan daitezke. Jarduera ez-ekonomikotzat jotzen dena: Ikerketarako eta garapen/ berrikuntzarako estatu-laguntzei buruzko Batasunaren esparruan Europako Batzordeak ezarritakoa (2006/ C 323/01).

**DOKUMENTAZIOA:**

- a) Eskabide inprimakia, non entitate eskatzailearen datuak jasoko diren.
- b) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko kide denaren egiaztagiria.
- c) Eskabidea egin behar duen pertsonaren ahalordetzaren kopia.
- d) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.
- e) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
- f) Zergak ordainduta dituela ziurtatzen duen agiria.
- g) Beste erakunde publiko edo pribatuei jarduera ez-ekonomikoetarako eskatutako edota horiek esleitutako laguntzen deklarazioa.
- h) Eskabidea egiten duen entitateari dagokionez, administrazio-zehapenik edo zehapen penalik duen ala ez egiaztatzeko deklarazioa, zeinak diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galarazten duen.

ARAUTEGIA: EBAZPENA, 2010eko urtarrilaren 22koa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena. EHAA: 2010/01/28.

EBAZPENA, 2009ko abenduaren 10ekoa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena. EHAA: 2009/12/18.

AGINDUA, 2008ko irailaren 25ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena. EHAA: 2008/10/16.

**Informazio gehiago:**

[http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/910-3\\_financiacion\\_centros\\_tecnologicos\\_gv\\_28-01-10.pdf](http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/910-3_financiacion_centros_tecnologicos_gv_28-01-10.pdf)

**EUSKADIN TURISMOA SUSTATZEKO PROGRAMA**

**Informazio Iturria:** EHAA

**Data:** 2010/01/18

**Epea:** 2010/04/11

**Xedea:** Turismo

**DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:**

Diruz lagundu daiteke zuzeneko onuradunak Euskadin ostatu-zerbitzu turistikoak kontratatzea.

**ONURADUNAK:**

Autonomoak, Enpresak, ETE, Lankidegoak, Mikroenpresak

**ZENBATEKOA:**

Programa honetako aurreikusitako laguntzak diru-laguntza bidez gauzatuko dira eta ez dira itzulgarriak. Diruz lagungarriak izango dira % 20ko beherapenak, erabiltzailearekin hitzartutako ostatu-tarifetan (BEZik gabe), aurretik aipatutako establezimenduetan. Tarifa irizten zaio erabiltzaileari egiten zaion azken prezioari, establezimenduak ken ditzakeen kontzeptu guztiak kendu ostean (fidelizazioa, enpresa eta abar).

Establezimenduak bere fakturan adierazi beharko du % 20ko beherapenaren arrazoia «+ Euskadi 2009» kanpaina dela, 9. artikuluan ezarri bezala.

**DOKUMENTAZIOA:**

Atxikipen-protokoloaz gain, dokumentu hauek bidali beharko dira:

- a) Sinatzen duen pertsonaren NANaren fotokopia.
- b) Nahikoa ahalordetzearen fotokopia, pertsona juridikoaren kasuan.

ARAUTEGIA: IRAGARKIA, Euskadin Turismoa Sustatzeko Programaren bigarren deialdia onartzeko dena. EHAA: 2010/01/18.

**Informazio gehiago:**

[http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/1014-1\\_crisis\\_economica\\_turismo\\_basquetour\\_18-01-10.pdf](http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/1014-1_crisis_economica_turismo_basquetour_18-01-10.pdf)

**MIKROENPRESA DIGITALA PROGRAMAREN BIDEZ LAGUNTZEKO NEURRI BATZUK EZARTZEN DIRA, INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN (IKT)**

**Informazio Iturria:** EHAA

**Data:** 2010/01/01

**Epea:** 2010/12/31

**Xedea:** IKT

**DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:**

- 1.– Programa honek zehaztutako gutxienezko espezifikazioak bete edo gainditzen dituzten ordenagailuak erosteko.
- 2.– Interneteko hornitzailearekiko alta kontratuaren gastuak, baita ere diru-laguntzaren xede diren ordenagailuek Internetera konektatzeko ordaindu beharreko kuotak, aurreneko 6 hiletan zehar.
- 3.– Biruskontrako hardwarea edota software lizentziak eskuratzeko gastuetarako, baldin eta programa honetan zehaztutako gutxienezko funtzionalitateak bete edo gainditzen badituzte.
- 4.– SPRIk KZguneen Sarean autonomoentzat eta mikroenpresentzat eskaintzen dituen IKTen erabilerari buruzko ikastaroetariko batera nahitaez etortzea (enpresa onuraduneko kide bat).

**ONURADUNAK:**

Autonomoak, Mikroenpresak

**ZENBATEKOA:**

- 1.– % 25eko diru-laguntza, programa honetan zehaztutako gutxienezko ezaugarri teknikoetara lotzen zaien ordenagailu berri bakoitzeko, eta 250 euroraino gehienez.
- 2.– % 50eko diru-laguntza interneteko sarbidea ematen duen hornitzailean alta hartzeko gastuetarako eta diru-laguntzaren xede diren ordenagailuek internetera konektatzeko ordaindu beharreko kuotetarako, aurreneko 6 hiletan. Horietarako diru-laguntza 200 eurokoa izango da gehienez.
- 3.– Araudi honetako «Diruz lagundu daitezkeen egitateak eta gastuak» izenburuko 4. artikuluko 3. puntuko biruskontrako hardwarea edota software lizentziak eskuratzeko gastuen % 100eko diru-laguntza; eskatzaile bakoitzari 80 euro emango zaizkio gehienez, erabiltzailea 1 baino ez bada, eta 90 euro gehienez, erabiltzaile 2 badira. Laguntza-eskaera aurkeztu aurreko 12 hilabeteetan eginiko fakturak baino ez dira onartuko. Programa honen iraunaldi osoan zehar enpresa bakoitzari emango zaion gehienezko laguntza 790 eurokoa izango da, honela banatuta:
  - \* 500 euro Internetera konektatutako ordenagailuak erosteko.
  - \* 200 euro diru-laguntzaren xede diren ordenagailuek Internetera konektatzeko ordaindu beharreko gastuetarako.
  - \* 90 euro biruskontrakoa eskuratzeko.

**DOKUMENTAZIOA:**

- a) Laguntza Eskatzeko Formularioa, zuzen betea, sinatua eta zigilatua.
- b) Ahalordetze eskrituraren fotokopia. Horrek bermatu behar du sinatzen duenak enpresaren izenean laguntza-eskaera hori egiteko adinako ordezkari itzulia ahalmena duela, eskatzailea pertsona juridikoa denean.
- c) Sinatzen duenaren Nortasun Agiri Nazinalaren fotokopia.
- d) Enpresaren edota elkartearen IFZ edo IFKren fotokopia, edo Ogasunaren Ziurtagiria, laguntza-eskaera aurkeztean onuraduna jardura ekonomikoa gauzatzen ari dela ziurtatzeko, edo balio bereko beste agiri bat.
- e) Laguntza-eskaera egin aurreko interneteko konexioaren azken fakturaren kopia. Laguntza-eskaeraren bidez, onuradunak konpromisoa hartzen du interneteko konexioa gutxienez 6 hiletan iraunarazteko.
- f) Proiektuan diruz lagundu daitezkeen gastuen fakturen fotokopia (ekipoa eta softwarea eskuratzeko gastuak eta giruskontrako hardwarea edota software lizentziak eskuratzeko gastuak).
- g) Finantza erakunde baten ziurtagiria, banku kontuaren titulartasuna onuradunaren (pertsona fisikoa edo juridikoa) izenean dagoela bermatzeko (kontu zenbakiaren 20 zifrak zehaztu behar dira).

ARAUTEGIA: IRAGARKIA. Mikroenpresa Digitala Programaren bidez laguntzeko neurri batzuk ezartzen dira, Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilera bultzatzeko autonomo eta mikroenpresen artean. SPRI:2010/01/01

**Informazio gehiago:**

[http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/858-2\\_tics\\_spri\\_01-01-2010.pdf](http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/858-2_tics_spri_01-01-2010.pdf)

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO IKERLANAK ARGITARATZEKO PROIEKTUETARAKO DIRU-LAGUNTZAK****Informazio Iturria:** EHAA

**Data:** 2009/12/30

**Epea:** 2010/03/31

**Xedea:** Aukera berdintasuna

**DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:**

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko egiten diren argitalpenak, ikerketak nahiz ekintza pilotuak lagunduko dira.

**ONURADUNAK:**

Unibertsitate

**ZENBATEKOA:**

Diru-laguntzaren

zenbatekoak ez du gaindituko pertsona edo erakundeak diruz lagunduko diren jardueretarako aurkeztutako aurrekontua.

**DOKUMENTAZIOA:**

- a) Argitalpen-proiektua, ikerketa-lana edo ekintza pilotua deskribatzen duen memoria (II. eranskina). Argitalpen-proiektua bada, argitaratu behar den material guztia aurkeztu beharko da.
- b) Aurreikusitako gastu guztien aurrekontua eta horien finantziazioa, jardueren arabera xehekatua (III. eranskina).
- c) Jasotako laguntzen edo diru-laguntzen ziurtagiria, edo diru-laguntzarik jaso ez bada, zinpeko adierazpena.
- d) «Datuen alta/Hirugarren interesatua» inprimakia (VII. eranskina).
- e) Pertsona fisikoa izanez gero, NANaren fotokopia; eta, pertsona juridikoa izanez gero, eratze-agiriarena eta identifikazio fiskaleko agiriarena.

- f) Curriculum Vitae-a: aztergai den eremuan edo antzeko beste eremu batzuetan ikerketa edo ekintza pilotua egingo dutenak/duenak generoaren arloan duten/duen prestakuntza eta esperientzia. Agiri horrekin batera, IV. eranskinean agertzen den idazkia aurkeztu behar da.
- g) Ziurtagiri eguneratuak, gehien jota, diru-laguntza eskatu baino hiru hilabete lehenagokoak: batetik, eskatzaileak zerga-betebeharrak konplituta dauzkala egiaztatzen duena, Foru Ogasunak egina; eta, bestetik, hala behar denean, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak konplituta dituela egiaztatzen duena, Lurraldeko Diruzaintzak egina, edo, salbuetsirik egonez gero, salbuespen hori egiaztatzen duen agiria. Dena den, pertsona edo erakunde onuradunak gai honi buruz eskatzen zaizkion egiaztargiri guztiak aurkeztu beharko ditu, diru-laguntza eman, justifikatu eta likidatzeko prozedurako fase guztietan.
- h) Ikerketa edo ekintza pilotua hainbat lagunen artean egitekoa bada, argi eta garbi zehaztu beharko da pertsona bakoitzak prozesuan izango dituen eginkizunak eta zereginak, ikertzaile nagusia zein izango den edo ekintza pilotuaren arduraduna zein izango den.
- i) Parte hartzaileak pertsona juridikoak izanez gero, legez eraruta daudela erakusten duten agiriak eta estatutuak.
- j) Eskatzaileak ordezkatzeko ahalmena duela egiaztatzen duen agiria eta ordezkariaren NANaren fotokopia.
- k) Eskabidea izenpetzen duen pertsonaren zinpeko adierazpena, egiaztatzeko batetik, pertsona horrek eta erakunde eskatzaileak ez dutela administrazio-zehapenik edo zehapen penalik sexu-diskriminazioa egiteagatik; eta bestetik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen itzalpean ez zaiela debekurik ezarri zigorrak irauten duen aldiaren ebazpen honetan araututako diru-laguntza eta laguntzak eskatzeko (VIII. eranskina).
- l) Zinpeko adierazpena, egiaztatzeko eskabidea izenpetzen duen pertsonak eta erakunde eskatzaileak ez dutela diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien administrazio-zehapen edo zehapen penalik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dien lege-debekurik ere (VIII. eranskina).
- m) Egiaztargiri eguneratua, dagokion foru ogasunak egina, erakunde eskatzailea BEZaz salbuetsita dagoela egiaztatzeko.

ARAUTEGIA: EBAZPENA, 2009ko abenduaren 16koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena. EHAA: 2009/12/30.

**Informazio gehiago:**

[http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/a-4\\_igualdad\\_investigacion\\_gv\\_30-12-2009.pdf](http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/a-4_igualdad_investigacion_gv_30-12-2009.pdf)

**2000 EUSKADI PLANA – IBILGAILUAK EROSTeko DIRU-LAGUNTZAK**

**Informazio Iturria:** EHAA

**Data:** 2009/11/26

**Epea:** 2010/05/18

**Xedea:** Ekonomiko-Finantza

**DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:**

Jarduera bat diruz laguntzeko, atxikitako saltzaile baten bidez ibilgailu berri bat edo gehienez bost urte dituen ibilgailu bat eskuratu beharko da, M1 edo N1 kategoriakoa. Ibilgailua Espainian matrikulaturik egon beharko da.

**ONURADUNAK:**

Autonomoak, Mikroenpresak, ETE

**ZENBATEKOA:**

Hau izango da laguntzen zenbatekoa: 500 euro ibilgailuko, Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SAREN aurrekontuaren kontura.

Ibilgailu berriak erosteko programa honi atxikitako laguntzak jasotzeko, ibilgailuko 1.000 euroko laguntza eman beharko du erositako ibilgailu berriaren ekoizleak edo inportatzaileak.

**DOKUMENTAZIOA:**

- a) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, honako hauek aurkeztu beharko ditu: (i) IFZen fotokopia, (ii) legezko ordezkariaren NAN edo AIZ, (iii) duen ahalordea egiaztatzen duen agiriaren kopia, eta (iiii) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiriaren fotokopia edo, hala badagokio, zerga horretan alta emanda dagoela dioen agiriaren fotokopia, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduela dioena.
- b) 4.2 artikuluko baldintzak betetzen dituen ibilgailu baten tratamenduan aritzeko baimena duen zentro batek emandako txatar bihurtzeari buruzko ziurtagiria non egiaztatzen baita txatar bihurtzea gertatu egin dela.
- c) Ordezkatzen den ibilgailuaren zirkulazio-baimena.
- d) Ordainagiriaren fotokopia, honako datu hauek jasoko dituen: saltzailearen datuak, ateratzen den azken prezioa, erositako ibilgailuaren modeloa eta 5. artikulua betez aplikatu den diru-laguntzaren zenbatekoa.
- e) Erosi nahi den ibilgailuaren fitxa teknikoaren fotokopia.
- f) Erosi nahi den ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia.

ARAUTEGIA: IRAGARKIA, 2000 Euskadi Plana – ibilgailuak erosteko diru-laguntzak. EHAA: 2009/11/26

**Informazio gehiago:**

[http://www.euskadi.net/cgi-bin\\_k54/bopv\\_20?c&f=20091126&a=200906280](http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20091126&a=200906280)

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN LANGABEZIAN DAUDEN ETA/EDO DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA JASOTZEN DUTEN PERTSONEN KONTRATAZIOA SUSTATZEKO EZOHIKO LAGUNTZAK. +EUSKADI 09 PLANA.**

**Informazio Iturria:** EHAA

**Data:** 2009/11/27

**Epea:** 2010/11/28

**Xedea:** Enplegua

**DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:**

Agindu honetan bildutako zehaztasunen arabera eskatzen diren kontratazioek jaso dezakete diru-laguntza. 3. artikuluan zerrendatutako erakunde onuradunek kontratazio bat edo gehiago eska ditzakete, edo bestela kontratazio-plan malgu eta ireki bat. Erakunde bakoitzak jarduera bererako kontratazioak eska ditzake, enplegu desberdinetarako lantaldeak eta/edo kontratazioak sortuz.

**ONURADUNAK:**

Enpresak, ETE, Herri Administrazioa, Herri sozietateak, Lankidegoak, Mikroenpresak

**ZENBATEKOA:**

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzaren bitartez, hilean 1.500 euroko laguntza emango da lanaldi osoko kontratu bakoitza, kontratatutako pertsonen soldaten kostua eta enpresa enplegu-emaileari dagozkion Gizarte Segurantzaren kuotak. Artikulu honen 5. eta 6. idatz-zatietan bildutako aurreikuspenak alde batera utzita, diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango du egindako kontratazioen kostua gainditu.

**DOKUMENTAZIOA:**

- a) Memoria, enpleguen edukia, diruz lagundu beharreko kontratu kopurua, eta kontratu bakoitzaren iraupena eta hasierako eta amaierako eguna adieraziko disuena.
- b) Erakunde eskatzaileak zinpeko aitorten bat egin behar du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza eta diru-laguntza publikoak itzultzeko prozedurei nahiz prozedura zehatzaileei buruz, prozedura horiek oraindik izapidetzealdian badaude.
- c) Erakunde eskatzailearen arduradunaren zinpeko aitortpena, zigor-eta administrazio-arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela eta horretarako ezgaitzen duen legeko debekuen eraginpean ez dagoela adierazita, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.
- d) Erakunde eskatzaileak zinpeko deklarazio bat egin behar du, administrazio honi nahiz beste administrazio publiko zein erakunde publiko edo pribatu batzuei xede eta helburu berarako eskatutako beste edozein laguntza zein egoeratan dagoen (emanda, eskatuta nahiz izapideak egiten) jakinarazteko.
- e) Erakunde onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu behar du, zerga-betebeharrak eguneratuak dituela frogatzeko, prozeduraren izapideak egitean hori berriz ere egiazta daitekeela aintzat hartuta. Administrazio Publikoen kasuan ez da beharrezkoa izango ziurtagiri hori aurkeztea.
- f) Zinpeko aitortpena, aldez aurretik programa honen kargura diru-laguntza eskabidearen xede izan diren kontratazioei buruz.
- g) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren edo dagokion erakundearen ziurtagiri eguneratua, erakunde edo enpresa eskatzaileak erakunde horiekiko betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzen duena.
- h) Hirugarren interesdunaren datuei alta emateko fitxa, erakundearen ordezkariak sinatua eta dagokion banku-entitateak zigilatua.
- i) Langile Batzordearen edo Enpresa Batzordearen txostena. Ordezkaritza-organo horien ordezkariaren erantzunik jaso ezean, Erakunde onuradunak horri buruz emandako ziurtagiria aurkeztuko da.

ARAUTEGIA: AGINDUA, 2009ko azaroaren 25ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena. EHAA: 2009/11/27.

**Informazio gehiago:**

[http://www.euskadi.net/cgi-bin\\_k54/bopv\\_20?c&f=20091127&a=200906294](http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20091127&a=200906294)

**INDUSTRIAKO EDO BERARI LOTUTAKO ZERBITZUETAKO ENPRESA GAZTE BERRITZAILE ETA HAZKUNDE-GAITASUN HANDIA DUTENEK EAEN GAUZATUTAKO ENPRESA-PROIEKTUETARAKO «CONNECT» PROGRAMA**

**Informazio Iturria:** EHAA

**Data:** 2009/02/27

**Epea:** 2010/12/31

**Xedea:** I+G+B

**DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:**

Oro har, enpresa-proiektua abian jartzeko beharrezko diren gastu edo inbertsio guztiek jaso ahal izango dute diru-laguntza, talde ebaluatzaileak aurrekontua onartu ondoren.

**ONURADUNAK:**

Mikroenpresak, ETE

**ZENBATEKOA:**

Diru-laguntzen zenbatekoak onartutako gastu garbiaren % 100 jaso ahal izango du, betiere 400.000 euroko mugapenarekin, eta beste 100.000 euro gehiago Connect Programako Batzorde Betebeharrak bikain jotako proiektuetarako, hau da, ondoren azaltzen diren egoeretako batean daudenetarako: 1.–

Enpresa dagoen sektoreari berrikuntza edota garapen teknologiko argia ekartzen dionean, 2.– Teknologia berriak ezartzeak proiektuei aldaketa kualitatiboa eta enpresaren lehiakortasuna biziki areagotzea ekartzen dienean edo, 3.– Teknologikoki aurreratuak diren proiektuak.

#### DOKUMENTAZIOA:

- a) Eskabide-agiria behar bezala beteta eta, horretaz gain, pertsona edo talde eskatzaileak eta, enpresa izanez gero, erakunde eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak izenpetuta.
- b) Proiektuaren memoria xehatua.
- c) Eratze-eskriburaren fotokopia, identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia eta pertsona eskatzailea edo eskatzaileak ordezkatzeko ahalmenaren kopia fede-emailea.
- d) Azken bi ekitaldietan Merkataritza Erregistroan utzitako kontuen kopia eta dokumentazio osagarria, edo, horien ezean, Sozietateen gaineko Zergaren edo, hala behar izanez gero, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken bi aitorpenak.
- e) Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eginak dituela egiaztatzen duen agiria.
- f) Zinpeko aitorpena.

ARAUTEGIA: IRAGARKIA, industriako edo berari lotutako zerbitzuetako enpresa gazte berritzaile eta hazkunde-gaitasun handia dutenek EAEn gauzaturako enpresa-proiektuetarako «Connect» izeneko laguntza programari buruzkoa. EHAA:2009/02/27

#### Informazio gehiago:

[http://www.euskadi.net/cqi-bin\\_k54/bopv\\_20?c&f=20090227&a=200901117](http://www.euskadi.net/cqi-bin_k54/bopv_20?c&f=20090227&a=200901117)

### RESISTE PROGRAMA

#### Informazio Iturria: EHAA

**Data:** 2009/10/19

**Epea:** 2010/12/31

**Xedea:** Ekonomiko-Finantza

#### DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

Diru-laguntza jaso dezaketan jardueratzen hartuko dira kanpoko aholkularitza-zerbitzu batzuek, baldin eta Spri SAK homologatutako aholkulari-zerrendako aholkulari batek kontratatu baditu. Kontrataturako zerbitzuak finantza-entitateei Programa hau indarrean jartzen denetik aurrera aholkularitza eman eta eurekin negoziatzeari buruzkoak izango dira, hain zuzen ere, entitate onuradunaren banku-zorra berregituratzeko.

#### ONURADUNAK:

Enpresak, ETE

#### ZENBATEKOA:

Zerbitzu-sari horien zati bat Spri SAK ordainduko die enpresei. Zehazki, ondoko zenbatekoa ordainduko du Spri SAK, betiere, hurrengo artikuluan ezarriko diren mugak kontuan hartuta: aholkularien zerbitzu-sarien zenbatekoa, zeina ez baita izango konpainiaren guztizko finantza pasiboari % 0,5 aplikatuz ateratzen den zenbatekoaren herena baino handiagoa, 60 milioi eurotik gorako zorra duten konpainien kasuan; 60 milioiko edo hortik beherako zorra duten konpainien kasuan, zenbateko hori modu berberean kalkulatu da, baina % 0,7 aplikatuta.

#### DOKUMENTAZIOA:

- a) Enpresaren bideragarritasuna egiaztatzen duen informazioa, 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- b) Zerbitzu profesionalen eskaintza eta aurrekontua, Spri SAK homologatutako finantza-aholkulariren batek zorra berregituratzeko finantza-aholkularitza emateko; aipatu zerbitzu profesionalak direla-eta sortutako zerbitzu-sariak jasoko dira bertan.

- c) (I) Legezko ordezkariaren IFZ, NAN edo AIZren fotokopia, (II) ahalordea duela egiaztatzen duen agiriaren kopia, eta (III) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiriaren fotokopia edo, hala badagokio, zerga horretan alta emanda dagoela dioen agiriaren fotokopia, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduela dioena.
- d) Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- e) Erantzukizunpeko aitortpena, ondoko hauei buruzkoa:
- f) Proiektu bererako beste instituzio publiko edo pribatu batzuetatik eskatu eta/edo jaso dituzten laguntzak.
- g) Enpresa eskatzaileak ez duela administrazio- edo zigor-arloko zehapenik jaso, eta ez duela inolako legezko debekurik diru-laguntza publikoak jasotzeko.
- h) Enpresa eskatzailearen finantza-zorren zenbatekoaren xehetasuna.
- i) Enpresak, aurtengo ekitaldi ekonomikoa eta aurreko bietan, estatu-laguntzaren izaera duen laguntza-erregimenaren babesean jaso dituen zenbateko guztien zerrenda, edozein dela ere laguntza eman duen entitate.
- j) Aitortpena, Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpoko eta merkatu erkidearekin bateraezina dela aurretiaz erabaki ondoren, enpresa onuraduna berreskuratze-agindu baten menpe ez dagoela dioena.

ARAUTEGIA: IRAGARKIA, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SArena (Spri SA). EHAA: 2009/10/19

#### Informazio gehiago:

[http://www.euskadi.net/cgi-bin\\_k54/bopv\\_20?c&f=20091019&a=200905609](http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20091019&a=200905609)

## PATENTEAK ESKATZEKO LAGUNTZAK

**Informazio Iturria:** EHAA

**Data:** 2009/12/18

**Epea:** 2010/09/15

**Xedea:** Merkataritza Kudeaketa

#### DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

- 1 Modalitatea: Patente-eskabidea idazteko kostuen % 50 finantzatuko da eta bai OEPMren aurrean egin beharreko izapidetzeari doazkion agente gastuak ere, betiere 1.500 euroko mugarekin.
- 2 Modalitatea: Eskabidea idazteko kostuen % 50 finantzatuko da (1 modalitatearen bidetik finantzatu ez badira) eta bai agentzia egokiaren aurrean egin beharreko izapidetzeari doazkion agente gastuak ere Patente europarrari dagokionez, itzulpen kostuak sartu ahal izango dira. Modalitate honentzat 2.500 euroko guztizko muda aurreikusten da.
- 3 Modalitatea: Itzulpen-kostuen % 50 finantzatuko da, hizkuntzako 400 euroko mugarekin eta 3.000 euroko guztizko mugarekin

#### ONURADUNAK:

Zentro teknologikoak

#### ZENBATEKOA:

- 1 Modalitatea: Patente-eskabidea idazteko kostuen % 50 finantzatuko da eta bai OEPMren aurrean egin beharreko izapidetzeari doazkion agente gastuak ere, betiere 1.500 euroko mugarekin.
